

Segurtasun arazoak sortu dituztenez ibilgailuen sartu-irtenek Zumalakarregi 7 eta 9 eta Virgen del Carmen kalearen artean dagoen plazatxora, bertako auzokideen erkidegoei galdetu egin zaie inkestaz, ia plazatxo hori oinezkoen esparru bihurtzen den ala ez, garajeetarako sartu-irtenetarako eta zamalanak egiteko erreserbarekin.

Oin-ekotze hori eskatzen ari zen aspalditik alde horretako auzokide batzuen aldetik.

Bozka emateko era izan da hauxe: Zumalakarregi etorbideko 7 eta 9 zenbakia duten atari eta erkidegoetako etxebizitza bakoitzeko bozka 1; guztira 30 etxebizitza dira.

Inkestan parte-hartzea ondoko hauxe izan da:

	7 ETXEAK	9 ETXEAK	GUZTIRA
GUZTIRA	10	20	30
PARTE HARTZAILEAK	7	17	24
PORTZENTAJEA	%70.00	%85.00	%80.00

Inkestan formulatu izan den galdera ondoko hauxe izan da: *"Ados al zaude Zumalakarregi etorbidea eta Virgen del Carmen kaleko 7 eta 9 zenbakien parean dagoen plazatxoa oinezkoen esparru bihurtzeaz, garajeetarako sartu-irtenetarako eta zamalanak egiteko erreserbarekin?* Emandako erantzunak kontuan izanik, emaitzak ondoko hauek izan dira:

	BAI	EZ
7 ATARIA	4 (%57.14)	3 (%42.86)
9 ATARIA	14 (%82.35)	3 (%17.65)
GUZTIRA	18 (%75.00)	6 (%25.00)

Laburtuta, **kontsultatutako etxebizitzaren % 80.00ak hartu du parte inkestan.** Horietatik, **%75.00 oinezkotzearen alde azaldu da** eta beste % 25.00 aurka azaldu da.